


## UDAL BATZORDEEN BERRI


LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2019/05/28) (2019/06/11)</b>  Hurrengo saioa: (2019/06/25)	Parte-hartze prozesua (Itsaso2030)	Siadecoko Juanjo Allur eta Itsaso Osa izan ziren bileran eta parte-hartze prozesuaren plangintza orokorra aurkeztu ziguten. Hiru fase aurreikusten dituzte eta horietan “zer” (prozedura), “nola” (metodologia) eta “noiz” (egutegia) proposatu dituzte. “Zer” gogoeta prozesuan “zer gara” eta “zer izan nahi dugu” landuko da; “nola” etorkizuna planifikatzeko tresna izango da (zer hartu kontutan, zein bide egin,...); “noiz”, ibilbide honen egutegia (hiru Herri Batzar -ekaina, iraila, abendua- eta lantalde dinamika anitzak, non herritarren partaidetza ezinbesteko baldintzat jotzen den.	Ekainaren 8ko Herri Batzarrerako herritarren parte-hartzea zabala izateko saiakera egin deialdiarekin batera
	Herri Batzarra	Ekainaren 8an egingo den Herri Batzarra 19:00etan hasiko da. Lehenengo ordu erdian aurreko Batzarretik gaur egunera bitartean emandako pausuak azpimarratuko dira eta 19:30etan Siadecoko partaideek parte-hartze prozesua azalduko dute. Ordubeteko saioa eskainiko digute eta azalpen orokorrez gain, hausnarketarako azpitaldeak ere aurreikusten dira.	
	Herri Batzarreko akta	Ekainaren 8ko Herri Batzarraren akta borobildu da eta gaztelaniazko bertsioa egiteko antolatu gara.	Aktaren banaketa asteazkenean egingo da.
	Hileta zibilak	Heriotza ondorengo dolua, agurra, hileta zibila edo omenaldi sentitua egiten laguntzen duten bi profesionalen eskaintza iritsi da Udalera.	Herritarrekin informazioa partekatu

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Ekimen sozio-kulturalak (2019/06/04)</b>	Udalekuak	Udalekuen eskaintzan aldaketa txiki bat egitea proposatu da: Zeramika bi asteetan egitea proposatzen zena, aste batean bakarrik egingo da eta azken asteen, pintura landuko da. Alegiako frontoiaren alboko paretan mural bat egitea da asmoa.	Frontoiko pareta aurrez garbitu beharko denez nola egin probatu



Hurrengo saioa: 2019/06/18		Udalekuetan parte hartu nahi dutenentzat berriazko jakinarazpena egitea erabaki da. Bertan, behin-betiko izen-ematea egitea eskatzen da.	
	Udalekuak-laguntzailea	Udalekuetan laguntzaile moduan aritzeko lau herritarrek eman dute izena. Hauetako bakoitzak aste bateko ardura izango du. Aste bakoitzean Udalekuetan egongo den haur kopurua kontabilizatu da eta zein laguntzaile izango duten ere proposatu da.	Laguntzaileei zein aste dagokien aipatu eta dagozkien haurren zerrenda eta ekintzen berri eman.
	Musika kontzertua	Ekainaren 15eko Musika kontzertuaren jakinarazpena prestatu da eta ekitaldiaren ondorengo mokadutxorako behar dena eskuratzeko gestioak egin dira. Herriko produktuak izango dira nagusiki.	Deialdia zabaldu
	Herriko produktuak	Herriko produktuen inguruko inkestaren erantzunak jasotzen hasi gara. Hala ere, oraindik produktu gehiago herrian badaudenez, beste saiakera bat egitea adostu da, oraingoan zuzenean beraiei galdetuz.	Jarraipenerako batzordea eratu

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Azpiegitura eta ingurumena (2019/06/12)</b>	Zaborren gestioaren emaitza positiboak	Azken hilabeteotan txertatu diren aldaketak oso emaitza onak ematen ari zaizkigu, 1.500 k errefusa hilero pisatzetik 680 kilotara jaitsi dugu maiatzean. 3,67 k/pertsonako.	Herritarrei jakinarazi eta sailkatzeko orduan elementuren bat nola bideratu azaldu
Hurrengo saioa: 2018/06/26)	Estintoreak	Extinorte enpresak Udaletxean jarri ditu 2 eta Ostatuan 4. Ostatuan ke detektoreak ere hondatuta zeuden. 6ak berriitu dira, eta zentrala ere bai, baina alarma eta bere kokalekua pendiente geratu dira.	Alarma kokatuarazi
	Leihoak berriitu Ostaturako komunean eta etxebizitzan	Udaletxeko leihoak ipini zituen enpresak jada ez du lan hori egiten eta beste enpresa batzuekin harremana egin behar da.	Aroztegiei aurrekontua eskatu
	Altzigarraga-Mandubia bidea	Pinudia atera zuen jabeak beste kamiokada batekin hainbat tramo nibelatu ditu. Udalak jarritako hodia lurperatu ere bai. Geroztik Udalak eskatuta, zilindroa pasatu da Mandubizelairaino.	



**ITSASOKO**  
UDALA  
(GIPUZKOA)

	Eskoilerak eta herri-bide konponketak	Jada hasi da Gainera enpresa lanean. Ekainean zehar gehiena aurrera dezake	Jarraipena egin eta bideak noiz izango diren itxita jakinarazi
	Bide zirkularraren garbiketa Itsaso-Alegia-Itsaso	Belarra oso hazia dagoenez, larunbat goizean, ekainak 15, talde batek traktore eta desbrozadoraz belarra moztuko du	